




ALBOAN

www.alboan.org



Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: **hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko**



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetza koadernoak

1. Lankidetza deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetza deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetza deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetza deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetza deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Marlén Eizaguirre Marañón

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1271-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Aurkezpena eta azterketa-metodologia	5
2. Iragan berria: diskurtsoak eta praktikak	9
2.1. Plan gidatzaileen funtsezko ideiak	9
2.2. Proiektu-kopurua	11
2.3. Zuzeneko laguntza	15
2.4. GGKE-en proiektu, ekintza eta hitzarmenak	16
2.5. Partzuergoen aldeko apustua	20
2.6. Proiektuen jarraitutasuna	21
2.7. Proiektu-motak	23
2.8. Landutako gaiak	28
2.9. Lehenetsitako kolektiboak	29
2.9.1. Adinaren arabera	30
2.9.2. Kolektibo espezifikoen arabera	31
2.9.3. Hezkuntza-esparruaren arabera	31
3. Eraginkortasunaren eta garapenerako hezkuntzaren agendaren diskurtsoa	33

4. Hezkuntza global eta eraldatzailearen etorkizuneko erronkak	37
4.1. Gardentasuna eta informazioa eskuratzea garapenerako hezkuntzan eta lankidetzan	37
4.2. Garapenerako hezkuntza proiektu eta hitzarmenetatik haratago	38
4.3. Erakunde-esparrua aldaketa-testuinguru batean	40
4.4. Metodologia berriak eta zaharrak: jarraitutasuna eta berrikuntza	42
5. Bibliografia	45

1. Aurkezpena eta azterketa-metodologia

Garapenerako hezkuntza osagai nagusietako bat izan da garapenerako nazioarteko lankidetzako ekintzetan. Lankidetzako proiektuak eta prozesuak finantzatu dituzten gobernuz kanpoko erakundeek eta erakunde publikoek garapenerako hezkuntzaren alde egin dute, argi eta garbi.

Ekintza horiek lankidetzaren “arreba txikia” dira. Gutxi gorabehera, baliabideen %10 erabiltzen da haietarako, eta horren ondorioz, azken urteetan, lankidetzaren deszentralizatuaren estrategia eta elementu bereizgarrietako bat izan da.

Hain zuzen, horregatik egingo dugu orain atzera begirako azterketa bat, bai garapen teoriko eta kontzeptualarena, bai garapenerako hezkuntzako praktika zehatzena, garapenerako hezkuntzaren egungo erronkak zein diren jakiteko.

Horretarako, garapenerako hezkuntzari buruzko dokumentu eta gogoeta nagusiak gainbegiratuko ditugu labur-labur, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzaren esparruan adierazgarrienak diren eta funts handienak dituzten zortzi erakunde publikoek finantzaturako proiektuak ere. Hauek dira erakunde horiek: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak, hiru hiriburuetakoko udalak eta Euskal Fundazioa.

Txosten honen bidez, azken urteetako (2004-2011) egoera deskribatu nahi da, eta erakunde publikoek finantzaturako proiektuek eragindako bilakaera aztertu. Ikerketa egiteko, datuak bilatu behar izan ditugu, eta zenbait muga aurkitu ditugu; alde batetik, informazioa lortzeko, eta beste batetik, informazioaren kalitateari dagokionez. Hori dela eta, garapenerako hezkuntzaren orientazioei buruzko pro-

posamenez gain, nahikoa informazio lortzeari buruzko proposamenak ere egingo dira, beharrezkoa baita garapenerako hezkuntzaren esparruan lankidetzaz-politikak aztertzeko eta haien jarraipena egiteko.

Badakigu gure inguruan askotariko ekimenak egiten direla garapenerako hezkuntzaren arloan, eta txosten honetan, ekimen horietako batzuk baino ez ditugula deskribatuko; hain zuzen, Euskadiko erakunde publiko nagusiek finantzatutakoak. Finantzatutako ekintza horiez gainera, beste programa, proiektu eta ekimen batzuk egiten dira, bai Estatuko edo Europako erakunde publiko edo pribatuek finantzatuta, bai gobernuz kanpoko erakundeen beraien eta haien inguruen hurbilaren laguntzari eta elkarlanari esker.

Azterlan honetan, erakunde publikoek gobernuz kanpoko erakundeentzat irekitako deialdien bidez finantzatutako proiektu eta programei buruzko informazioa soilik aztertzen da. Zenbait erakundetan, garapenerako hezkuntzan, beste tresna batzuk erabiltzen dira gobernuz kanpoko erakundeen bidez lortutako finantziarioz gain. Dena den, proiektu eta programetan jarri dugu arreta, haiek gauzatze-ko erabiltzen direlako baliabide eta ahalegin gehien, eta beste informazio-mota bat lortzea zaila izan delako.

Hala ere, azpimarratu behar da erakunde publikoek, garapenerako hezkuntzarekin lotutako jarduerak egiteko, hauek erabiltzen dituztela: boluntario eta bondatezko lankideei laguntzeko programak (bekak, gazteentzako sentsibilizazio – eta truke-programak, etab.), erakundeekin sinatutako hitzarmen espezifikoak, eta sentsibilizazio – eta prestakuntza-ekintzak (bai erakundeen beraien barruan, bai kanpoari begira). Lehen hurbilketa batean, ez dugu erakunde guztien jarduera horiei buruzko informazioa lortu, eta beraz, lehenago esan dugunez, garapenerako hezkuntzako proiektu eta programetan jarri dugu arreta.

Gehienetan, erakundeetako garapenerako lankidetzako sailak egindako memoiren bidez lortu dugu informazioa, bai eta, zenbait kasutan, aldizkari ofizialetan argitaratutako ebazpenen bidez ere. Horri esker, emaileei, deialdi-ereduari, urteari eta publikotasunari buruzko informazioa lortu dugu, behintzat. Hezkuntza-proiektuei dagokienez, proiektuaren izenburuari, aurkezten duen GGKE-ari eta jasotako diru-laguntzaren zenbatekoari buruzko informazioa lortu dugu.

Zailtasun handienetako bat informazioa eskuratzea izan da. Informazio horrek datu gutxi emateaz gainera, ez da lortzen erraza. Informazioa lortze aldera, beharrezkoa izan da aldizkari ofizialetan bilatzea, erakunde beraiei informazioa

eskatzea eta hirugarren erakundeen webguneak aztertzea. Edonola ere, kasu gehien-gehienetan, informazioa ez dago eskura, eta ez da modu adeitsuan aurkezten, eta beraz, gehiago jakin nahi duenak oztupo asko aurkitzen ditu.

Bestalde, kalitateari eta zehaztasunari dagokienez, erakundeen informazioa oso bestelakoa da, eta horrek konparazioak egitea galarazten du. Gainera, datu-base homogeneoak lortzea ere eragozten du, eta hortaz, datu-base bat sortu eta datuak base horretan sartu behar izan ditugu, konparazioa egin ahal izateko. Esan behar da proiektuei buruzko informazio gutxi dagoela; gehienetan, erakundeen izenak, zenbatekoak eta proiektuen izenburuak besterik ez. Ildo horretan, ez dago horrelako proiektuak kodetzeko homologatutako irizpiderik, eta hori oso muga handia da. Ez dago irizpiderik Euskadin, ezta Estatuan eta European ere, eta hortaz, ezin da onartutako proiektuei buruzko azterketarik egin, kalitatezko, konparaziozko edota sakonik.

Informaziorik ezak txosten honetan beste alderdi batzuk garatzea galarazi izan du:

- Garapenerako hezkuntzaren arloan erakunde publikoek egiten dituzten jarduera guztiei buruzko informazioa lortzea (GGKE-en bidez finantzatutako proiektuei buruzkoaz gain), eta lan-esparru horretan emandako baliabideen zenbateko osoa ezagutzea.
- Plan gidatzaileetan ezartzen diren irizpideak erabiltzea konparazioak egiteko. Gure ustez, onartutako proiektuek plan gidatzaileetan lehenetsitako ezaugarriak dituzte, baina ez dago hori egia den ala ez jakiterik.
- Garapenerako lankidetzan urtero guztira zer zenbateko erabili diren jakitea. Guztira gastatutako zenbatekoa jakin ezean, zaila da erakundeek konpromisoak betetzen dituzten ala ez jakitea; hau da, garapenerako hezkuntzan %6-10 erabiltzen duten ala ez.

Bada ikerketan eragina duen beste elementu bat: partzuergoen lanaren jarraipena egin ezin izatea. Izan ere, berariaz partzuergoentzat ez diren deialdietan ere, partzuergoa azaltzen da batzuetan, eta beste batzuetan, partzuergoko buru den erakundea. Hortaz, oso zaila da GGKE-ek zenbat partzuergo osatzen duten zehatz-mehatz jakitea.

2. Iragan berria: diskurtsoak eta praktikak

2.1. PLAN GIDATZAILEEN FUNTSEZKO IDEIAK

Garapenerako hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta tokiko erakunde nagusien plan gidatzaileetan hartu dute kontuan. Orobat, bere lekua izan du gobernuz kanpoko erakunde gehienen plangintza estrategikoan ere.

Gure inguruan, azken urte hauetan, HEGOAK garapenerako hezkuntzaren batzarrek antolatu ditu, beste erakunde batzuekin batera. Eta hain zuzen, batzar horietan egin dira garapenerako hezkuntzari buruzko lehen hausnarketak, batik bat. 1990ean, 1996an eta 2006an egin dira batzarrak, eta 2014an, beste bat egingo da. Lehen batzarra egin zenetik hona, gobernuz kanpoko erakundeek eta erakunde publikoek kontzeptu-esparru bat garatu dute, garapenerako hezkuntzan egi-ten diren estrategiak eta ekintzak barne har ditzan.

Beharbada, goieneko momentua 2010. urtean gertatu zen: AECIDek Garapenerako Hezkuntzaren Estrategia egin zuen. Tresna horrek kontzeptu-esparru bat sortu zuen ekintza horietarako, baina, horrez gain, garapenerako hezkuntzan egindako lana aintzat hartu eta balioetsi zuen. Zoritxarrez, kontzeptu-esparru eta estrategia horiek ez dira martxan jarri, gai politikoak eta ekonomikoak direla medio.

Garapenerako hezkuntzaren estrategia haren ildoan, nazioarteko lankidetzari eta, bereziki, lankidetzaren deszentralizatuari buruz eztabaidatu zen, eta horren ondorioz, hainbat hausnarketa eta argitalpen asko egin dira; esaterako, GGKE-ek eta GGKE-en koordinakunde autonomikoek Estatuko garapenerako hezkuntza aztertu dute.

Hausnarketa horietako asko garapenerako hezkuntzako belaunaldien proposamenen oinarritu dira. Proposamen hori Mari Luz Ortégak egin zuen, eta ondoren, Manuela Mesak garatu zuen. Mari Luz Ortégak eta Manuela Mesak garapenerako hezkuntzako bost belaunaldi deskribatu zituzten, 1980ko hamarkadatik gaur egunera artekoak. Beraz, belaunaldi bakoitzaren deskribapena dago, eta zer garaitakoa den dakigu, baina onar daiteke belaunaldi bakoitzeko zenbait kidek garai guztietan jardun dutela. Lehen belaunaldiak herritarrak sentsibilizatzeko lana egin zuen, egoera jakin baten berri emanez, eta egoera hori aldatzeko zenbait jarraibide eman zituen. Proposamen horrek badu hutsune bat: ia ez dira egoera eragiten duten arrazoiak eta kausak azaltzen, eta pertsonak laguntzaren hartzaille pasibotzat azaltzen dira. Bigarren belaunaldiak babes politikoarekin lotutako ekintzak egin zituen, eta Hegoaldeko erakunde eta mugimenduen proposamen, ekimen eta borroken berri eman. Hirugarren belaunaldian, ingurumen-ikuspegiarekin lotutako alderdiak hartu ziren aintzat; 1992ko Rioko Batzarraz geroztik gero eta ezagunagoak izan zen hori guztia. Laugarren belaunaldian, sentsibilizazio-, informazio – eta proposamen-ekintzak egin ziren, Iparraren eta Hegoaren arteko lotura kontuan hartuta, eta ekintza guztiak elkarren mende daudela onartu zen. Eta azkenik, gaur egun, bosgarren belaunaldiaren erronkaren aurrean gaude; herritartasun global gisa eraikitzeko eta jarduteko erronkaren aurrean, hain zuzen ere. Bestalde, bereziki nabarmentzen da gizarte-mugimenduak eta elkarrekiko mendekotasunaren dinamikak lotuta daudela, eta bertan behera utzi nahi da Iparraren eta Hegoaren arteko dikotomia.

Kontzeptu-esparru horri esker, garapenerako hezkuntzaren estrategiak heldu beharreko erronkei buruzko ikerketa eta gogoeta garrantzitsuak egin dira azken urteetan. Hala ere, egindako ekintzak eta haien eraginak ez dira behar bezala ebaluatu edota zabaldu.

Euskadin, gorago aipatutako batzarrez gain, “Labirintotik irteteko hezkuntza-mosaikoa” (Garapenerako hezkuntzaren eta herri-heziketaren nazioarteko sarea” topaketa da aipatzekoa. 2003an egin zen, eta haren argitalpena ondoren garatutako hezkuntza-estrategia askoren erreferentzia izan da. Argitalpen hartan, garapenerako hezkuntzaren lau alderdi hauek garatu ziren: pedagogikoa, politikoa, kulturala, eta sistematizazioa eta ebaluzioa. Euskadiko erakunde publikoek alderdi horiek jaso dituzte beren plan gidatzaile gehienetan.

Euskadiko lankidetzari buruz egindako azterlanean, Escuderok eta Mesak hau jaso zuten garapenerako hezkuntzari dagokionez: “Garapenerako hezkuntzaren

hiru alderdi proposatzen dira: alderdi kulturala, politikoa eta pedagogikoa. Plan Gidatzaileak hau dio: “Bultzatu nahi den garapenerako hezkuntzaren proposamenan, egun nagusi den ereduak zalantza jartzen da eta gizarte-aldaketaren alde egiten du. Gizartea eraikitzeke balio merkantilizatuei buelta eman eta hezkuntzari eduki iraultzailea eman nahi diogu, hots, egun nagusi den mendebaldeko zibilizazio-ereduak eragin duen garapen bidegabearen inguruan, gizarte-kontzientzia piztea lortu nahi dugu, eredu hori aldatzeko gaitasuna indartzeko. Horretarako, ezinbestekoa da munduko ezberdintasunak eragin dituzten arrazoiak ezagutzeko eta informazioa dagokion testuinguruan kokatzea, hartzaileei egokituta eta konsumoko, aisialdiko eta parte-hartze politikoko aukera berriak proposatuta. Garapenerako hezkuntzako ekimenek zeharkako hainbat aldagai kontuan izan behar dituztela proposatzen da. Aldez aurreko azterketa eta diagnosa egiten hasten denetik azkeneko ebaluazioa egiten den arte, plangintza-prozesuaren parte baitira. Hauek dira zehar-lerroak: genero-berdintasuna, kultura artekotasuna, bakea, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa eta Hegoaldeko ikuspegia. Lehentasuneko arlo hauek ezarri dira: eragin politikoa, berrikuntza eta sormen metodologikoa, ikerketa, prestakuntza, eta komunikazio, elkartruke eta ikaskuntza kolektiboa.”¹

Neurri handi batean, txosten honetan aztertutako euskal erakunde publiko gehienek ikuspegi hori onartzen dute. Hortaz, ikus dezagun zer-nolako praktikak egin dituzten.

2.2. PROIEKTU-KOPURUA

2004tik 2011ra bitartean, garapenerako hezkuntzako 1.300 proiektu inguru finantzatu dira GGKE-en bidez. Proiektuen batez besteko kopuruak bere horretan jarraitu du, nolabait, baina proiektuen batez besteko zenbatekoa finantzatzaileen arabera aldatzen da.

¹ Manuela Mesa, 40. or.

1. Taula. Erakundeek finantzatutako proiektuak (2004-2011)

Urtea	Bil. Udala	AFA	BFA	GFA	Don. Udala	Euskal Fundoa	Eusko Jaurlaritza	Gas. Udala	Guztira
2004	21	5	21	16	27	4	26	32	152
2005	19	10	18	12	19	3	30	24	135
2006	14	15	18	10	19	3	27	30	136
2007	23	15	17	11	20	3	26	42	157
2008	32	12	23	8	20	3	32	33	163
2009	36	24	26	17	16	2	19	29	169
2010	41	29	25	11	10	4	32	29	181
2011	39	24	32	14	12		24	30	175
Guztira	225	134	180	99	143	22	216	249	1.268


Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

2. Taula. Garapenerako hezkuntzan emandako diru-kopurua guztira (2004-2011)

Urtea	Bilboko Udala	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Donostiako Udala	Euskal Fondeo	Eusko Jauriaritza	Gasteizko Udala	Guztira
2004	153.622,00	112.939,48	600.000,00	359.543,94	129.900,00	66.605,00	1.964.436,70	226.692,62	3.613.739,74
2005	357.322,61	122.416,97	600.300,00	394.810,75	99.050,00	150.272,00	2.496.080,13	246.752,33	4.467.004,79
2006	150.327,00	148.415,31	600.000,00	448.586,53	104.125,00	162.096,00	2.679.996,95	240.975,49	4.534.522,28
2007	288.575,00	129.000,01	716.450,00	496.180,27	110.750,00	175.037,06	2.936.484,21	395.619,77	5.248.096,32
2008	394.100,31	273.100,00	942.151,14	467.993,40	203.940,89	202.425,29	4.196.266,79	307.940,52	6.987.918,34
2009	389.801,80	490.656,89	1.037.379,96	710.042,00	220.759,02	147.293,93	3.079.951,88	277.077,68	6.352.963,16
2010	443.785,09	454.689,47	1.033.875,33	511.900,00	195.758,81	238.909,80	3.546.807,86	327.117,53	6.752.843,89
2011	434.404,51	387.140,25	1.075.000,00	525.618,50	195.548,99		3.294.656,94	275.459,85	6.187.829,04
Guztira	2.611.938,32	2.118.358,38	6.605.156,43	3.914.675,39	1.259.832,71	1.142.639,08	24.194.681,46	2.297.635,79	44.144.917,56

Iturria: Geuk e gina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

1. Grafikoa. Proiektu-kopuruaren bilakaera, erakunde finantzatuaren arabera (2004-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Eskuarki, 2004tik 2008ra bitartean, garapenerako hezkuntzarako zenbatekoek goranzko joera izan zuten, eta 2008. urteaz geroztik, berriz, beheranzkoa, zenbait aldaketarekin. 2011n –hots, aztertutako azken urtean–, sei milioi euro bideratu ziren esparru horretara, guztira. Edozelan ere, 2008. urtean erabili zen diru-kopururik handiena garapenerako hezkuntzan; hain zuzen, ia zazpi milioi euro banatu ziren 163 proiekturen artean. Dena den, 2010ean finantzatu zen proiektu gehien.

Ildo horretan, azpimarratu behar da krisia 2008. urtean hasi zela, baina garapenerako hezkuntzan izan duen eragina ez dela hain handia izan, diru-kopuruei dagokienez. Egoera horretan, oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak guztizko zenbatekoetan duen pisu espezifikoak. Aztertutako urteei begira, Eusko Jaurlaritzak funts guztien %54 eman du, eta 2012ra bitartean, ez ditu garapenerako hezkuntzarako diru-kopuruak txikitu; izan ere, 2013an hasi zen murrizketak egiten.

Bestalde, adierazi beharra dago Euskal Fonda ez dela aurrerantzean azterketetan azalduko; izan ere, garapenerako hezkuntzari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak kudeatzen dituen beka batzuk eta Sahararen aldeko zenbait jardura baino ez ditu finantzatzen, eta hortaz, ez du GGKE-en bidez proiekturik finantzatzen. Horrenbestez, ez da aurrerantzean azalduko.

2.3. ZUZENeko LAGUNTZA

Zuzeneko laguntza erakundeek beraiek zuzenean egiten dituzten jardueri dagokie. Jarduera horiek sentsibilizaziorako edo garapenerako hezkuntzarako dira, eta erakundeetan bertan egiten dituzte, edo erakundetik kanpo, herritarrekin.

Askotariko jarduerak izaten dira: hausnarketa – edo sentsibilizazio-jardunaldiak, berariazko kanpainak, bidezko merkataritzako produktuen erabilera erakundeetan jardueretan, oporretarako harrera-programak, borondatezko laneko programak, eta lankidetzaren arloko koordinakundeei eta kontseiluei laguntzeko jarduerak.

Ezinezkoa izan da erakunde guztien zuzeneko laguntzei buruzko informazioa eskuratzea. Badakigu Eusko Jaurlaritzak berariazko programak dituela, gazteen borondatezko lanari laguntzeko eta Nazio Batuen bekak emateko, baina programa horiek ez dira aztertu ditugun datuetan azaltzen. Bilboko Udalak, Gasteizko Udalak eta Euskal Fondoak, berriz, horrelako ekintzei buruzko informazioa ematen dute. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren kasuan, zenbait urtetako informazioa lortu dugu.

Hala ere, ekintza horietan, guztira emandako funts guztien %5 inguru baino ez da erabili. Dena den, badaude salbuespenak; esate baterako, Bilboko Udalak funtsen %39 erabiltzen du zuzeneko laguntzan. Laguntza hori hitzarmenekin eta zuzeneko laguntzekin dago lotuta. Besteak beste, honako hauek bideratzen dira: bidezko merkataritza; zinema eta elkartasuna; genero-estrategiei buruzko jardunaldiak; erakusketak; adingabeen oporretarako programak, zenbait herrialdetan; eta GGKE-en koordinakundeari eta tokiko lankidetzako kontseiluari laguntzea.

Gasteizko Udalaren kasuan, guztizko zenbatekoaren %15 erabiltzen da zuzeneko laguntzarako, eta jarduera hauek dira laguntzaren xede: bidezko merkataritzaren berri ematea eta erakunde publikoan produktu horiek kontsumitzea; argazki-lehiaketa bat; urteko kanpaina tematikoak; memoriak egitea; eta beste hedapen-estrategia batzuk.

Azkenik, Euskal Fondoaren kasua da aipatzekoa: EHUko ikasleentzako beka-programa bat finantzatzen du, bai eta Sahararen inguruko koordinazio – eta sentsibilizazio-ekintzak ere.

2.4. GGKE-EN PROIEKTU, EKINTZA ETA HITZARMENAK

Lehenago, garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuetan guztira zer zenbateko finantzatu den azaldu da. Orain, azterketa zahatzagoa egingo dugu; hain zuzen, erakunde finantzatzaileei buruzkoa.

Erakundeek egiten dituzten deialdien aniztasunari erreparatuz gero, nabarmendu behar da bi udalek askotariko tresnak dituztela sentsibilizatorako eta garapenerako hezkuntzarako ekintzei laguntzeko. Gasteizko eta Bilboko udalez ari gara.

Hain zuzen ere, Gasteizko Udalak zenbait tresna garatu ditu sentsibilizazio – eta hezkuntza-ekintzei laguntzeko. Hasieran, unean uneko ekintzak finantzatzen zizuten, baina deialdi hori itxi zuten, eta urteko nahiz hainbat urtetarako proiektuekin, hitzarmenekin eta, lehenago esan bezala, zuzeneko laguntzarekin lotutako deialdiak egiten hasi ziren.

3. Taula. Gasteizko Udalaren tresnak (2004-2011)					
Urtea	Unean uneko ekintzak	Hitzarmena	Proiektua	Zuzeneko laguntza	Guztira
2004	6	5	10	11	32
2005	-	8	5	11	24
2006	-	7	11	12	30
2007	-	10	18	14	42
2008	-	8	11	14	33
2009	-	9	10	10	29
2010	-	6	11	12	29
2011	-	8	15	7	30
Guztira	6	61	91	91	249

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Bilboko Udalaren deialdien eskema oso antzekoa da. Udal horrek ere urteko eta zenbait urtetarako proiektuetarako, sentsibilizazio – eta hezkuntza-hitzarmen espezifikoetarako, eta zuzeneko laguntzako ekintzetarako deialdiak ditu.

4. Taula. Bilboko Udalaren tresnak (2004-2011)				
Urtea	Hitzarmena	Proiektua	Zuzeneko laguntza	Guztira
2004	-	12	9	21
2005	-	9	10	19
2006	-	14		14
2007	2	12	9	23
2008	3	12	17	32
2009	5	13	18	36
2010	4	10	27	41
2011	5	15	19	39
Guztira	19	97	109	225

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.


Orobat, badakigu Arabako Foru Aldundiak ere prestakuntza-programak egiteko, koordinakundeei laguntzeko eta klima-aldaketaren kontra egiteko hitzarmenak dituela. Gainera, 2009an eta 2010ean, oportetako harrerekin eta jardunaldi zehatzekin lotutako unean uneko ekintzak ere egin zituen.

Azken urteetan, foru-aldundi guztiek ere sentsibilizazioarekin lotutako unean uneko ekintzak egin dituzte. Bestalde, aholkularitza teknikoak egiteko aukera ematen dute, lankidetzako edo garapenerako hezkuntzako proiektuetan genero-ikuspegia sartzeko².


Horiez gain, aztertutako erakunde guztiek –Euskal Fondoak izan ezik– urteko proiektuetarako deialdiak dituzte. Proiektu horiek 24 hilabeteko iraupena izan dezakete, gutxi gorabehera.

² Gai honetan sakontzeko, bilduma honetako 9. koadernoak kontsulta daitezke: Generoa eta lankidetzaren deszentralizazioa.


2. Grafikoa. Bilboko Udalaren tresnen banaketa




3. Grafikoa. Donostiako Udalaren tresnen banaketa




4. Grafikoa. Gasteizko Udalaren tresnen banaketa





5. Grafikoa. Arabako Foru Aldundiaren tresnen banaketa



6. Grafikoa. Bizkaiko Foru Aldundiaren tresnen banaketa





Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

2.5. PARTZUERGOEN ALDEKO APUSTUA

GGKE-ek hitzarmenak egiten dituzte elkarrekin, sentsibilizazioko eta garapenerako hezkuntzako jarduerak egiteko. Batzuetan, GGKE-en baterako lanaren ondorioz sortzen dira hitzarmenak, eta beste batzuetan, administrazioek beraiek sustatzen eta indartzen dituzte.

Zaila da partzuergo guztien berri izatea; izan ere, zenbait kasutan, partzuergoko erakunde nagusia baino ez da azaltzen datuetan. Dena den, zenbait erakundek zehaztu eta sustatu egiten dute, eta agian, horrek eragina izango du datuek erakutsitako emaitzetan. Izan ere, gure datu-basean, 54 hitzarmen daude, eta haietatik, Gasteizko Udalak 45i eman die finantziazioa.

Gasteizko Udalaren finantziario gehien jasotzen duten GGKE-en artean, bost partzuergo daude. Hain nabarmena ez izan arren, Bilboko Udalak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek ere finantziario esanguratsua eman diete zenbait partzuergori.


Hori ulertzeko, bi arrazoi argi daude: alde batetik, Gasteizko Udalak partzuergoak finantzatzeko finantziario-tresna espezifiko bat du, eta beste batetik, oso informazio zehatza ematen du, eta horri esker, finantziarioa jaso duten partzuergo guztiei buruzko informazioa lortu dugu.

2.6. PROIEKTUEN JARRAITUTASUNA

Azpimarratu beharreko beste elementu interesgarri bat da proiektuen jarraitutasuna. Jarraitutasun hori ondorioztatu behar izan dugu eta, horretarako, proiektuen izenburuei erreparatu diegu: alde batetik, faseak aipatzen dituzten izenburuak bilatu ditugu, eta beste batetik, urteetan zehar izenburu berbera zuten izenburuak. Zalantzarik gabe, urtebetetik gorako proiektu gehiago egongo dira, eta urtero gai jakin batean apur bat gehiago sakontzen duten proiektuak; alabaina, ez daukagu informazio nahikorik.

Hala ere, gure buruari hezkuntza – eta sentsibilizazio-proiektuen jarraitutasunaz galdetzea garrantzitsua iruditzen zaigu; izan ere, hezkuntza-lanak, beste hainbat gizarte-jarduerak bezala, denboran jarraitu behar du, eraginik handiena izan nahi badu. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea oreka behar dela jarraitutasunaren eta berrikuntzaren artean, aldaketaren eta sormenaren artean, proiektuak eta proposamenak bat etor daitezen testuinguruarekin, eztabaida-agendarekin, eta erakundeen eta haien laguntza jasotzen duten kolektiboen behar, eskaera eta aukerekin.

9. Grafikoa. Projektuen jarraitutasuna



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Grafikoan ikus dezakegunez, oreka handia dago Bilboko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak finantzaturako projektuen jarraitutasunaren eta ekimen berrien artean. Euskal Fondoaren kasua argi dago, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzako beka-programa baita haren sentsibilizazio-proposamena. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, jarraituak diren eta berriak diren projektuen arteko aldea handiagoa da beste administrazioen kasuan baino.

Aipatzekoa da Gasteizko eta Bilboko udalen kasua; alde batetik, hainbat urterako hitzarmen eta programen bidez, zenbait proiektu eta erakunde babesten dituztelako (hots, haiekiko konpromisoa dute), eta beste batetik, urteko deialdietan, proiektu berri eta anitzei laguntzen dietelako. Hau da, posiblea da funtsezko proiektu batzuei –batik bat, prestakuntzarekin eta sentsibilizazioarekin lotuta daudenei– lehenasuna eta jarraitutasuna ematea, eta aldi berean, berrikuntzara eta aniztasunera irekita egotea. Beraz, administrazio publikoen zein gizarte-erakundeen politika bi alderdi horien (jarraitutasuna eta aldaketa) inguruan antola daitezke.

2.7. PROIEKTU-MOTAK


Proiektuei dagokienez, lehenago azaldu dugunez, ezin izan dugu beharrezko informazio guztia lortu. Hortaz, 2004tik 2009ra bitarteko proiektuen kasuan, informazio gehigarria eskatu genien finantziario gehien jaso zuten zenbait GGKE-ri. Haietako batzuek erantzun egin ziguten, eta informazio hori aztertuta, ondorio batzuk atera ahal izan ditugu. Erakunde publikoek finantzatutako proiektu guztien ezaugarriak kontuan hartuta, proiektu horiek lagin adierazgarri bat baino ez dira. Hala ere, horiei esker, garapenerako hezkuntzako estrategia hori martxan jartzeko moduari buruzko informazio gehigarria izan dezakegu.

Ikerketan zehar, erakunde finantzatzaile guztien funts gehien jaso duten erakundeekin jarri gara harremanetan, eta 2004tik 2009ra bitartean finantzatu zaizkien proiektuei buruzko informazio gehiago eskatu diegu. Erakunde horietako asko laguntzeko prest azaldu dira³, eta laguntza hori eskertu nahi diegu, horri esker azterlan osoago bat egiteko aukera izan dugu.

Une batez gogora ekarri nahi dugu aurreago garapenerako hezkuntzan bost belaunaldi daudela aipatu dela, eta akademiak zein GGKE-ek adierazten dute garapenerako hezkuntzako bosgarren belaunaldian gaudela. Bosgarren belaunaldi horretan, honela ulertzen da garapenerako hezkuntza: **herritartasun globalaren-tzako hezkuntza**, edukiak, ikuspegi orokorra, eta ekintza – eta aldaketa-sareen sorrera oinarritzat hartzen dituena. Mobilizazioa, eragina eta beste hitz batzuk indarrez sortzen dira berriro, gobernuz kanpoko erakundeek garapenerako hezkuntzaren arloan egiten dituzten jarduerak indartzeko ekintza modura. Belaunaldi horrek laugarren belaunaldiaren bereizgarri ziren alderdi batzuk gaingitu nahi ditu. Belaunaldi hartan, gai jakin eta independente batzuk proposatzen ziren –batez ere, merkataritza-egituren aldaketa–, baina, haiek konpontzeko, azterketa eta ekintza globala behar ziren. Bosgarren belaunaldiak gai horiei heltzen die, baina beste modu batean; hain zuzen, herritarrei eman nahi die protagonismoa, gizarte-mugimenduen, komunitate-elkarteen, eta batzuen eta besteen arteko sare eta aliantzen bidez. Halaber, gero eta argiagoa da heltzen diren gaien artean elkarrekiko mendekotasuna dagoela.

³ Informazio gehigarria eman diguten erakundeak hauek dira (eta laguntza eman izanagatik eskertu nahi diegu: Calcuta Ondoan, Círculo Solidario Euskadi, Coordinadora Estatal de Comercio Justo, CONGD Araba, Consorcio África Imprescindible, EHNE, Emaús, Euskadi-Cuba, Hegoa, Interred, Intermon Oxfam, Medicus Mundi Gipuzkoa, Paz y Solidaridad Euskadi, Setem Hegoa Haizea eta ALBOAN.

10. Grafikoa. Finantzatutako proiektu-motak



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Urte hauetan (2004-2009) finantzatutako proiektuak aztertzean, belaunaldi bate-tik hurrengora igarotzean joera-aldaketa gerta daitekeela ohartu ginen. Izan ere, sentsibilizazio – eta prestakuntza-proiektu “tradizionalagoen” ordez, ikerketa – eragin – eta mobilizazio-ekintzen aldeko apustu garbia dago. Guk baikorra deritzogu aldaketa horri, sektorea etengabe hausnartzen ari dela erakusten baitu, eta diskurtsoan eta proposamenetan koherentziaz jokatzeko duela.


Hala ere, nahiz eta ekintzak aldatu, ez dugu alde batera utzi behar garapenerako hezkuntzako prozesuetan funtsezkoa den zerbait: kolektibo berriak sentsibilizazioa, haiengana iristea eta prestakuntza ematea, ikuspegi kritiko batetik, koherentziaz jokatzeko gai izan daitezen. Horrenbestez, eragin – eta mobilizazio-prozesu eta – proiektuek continuum bat izan beharko lukete: sentsibilizazioa, hezkuntza eta prestakuntza, ikerketa, mobilizazioa, eragina, eta azkenik, sentsibilizazioa berriro ere. Horrela, prozesu jarraitua eta ziklikoa sortuko litzateke,

eta horrek gai, ekintza eta proposamenetan apurka-apurka sakontzeko aukera emango liguke. Beraz, egiten diren ikerketak continuum horretan sartzen diren heinean, proiektuak banatzeko modu berria koherentea dela dirudi.

Hala ere, oso proiektu gutxik sortzen dituzte baliabide hezigarri eta didaktikoak, eta hori deigarria eta kezagarria da aldi berean; gehienbat, proiektu horiek gero eta gutxiago direlako. Askotan esan da ikastetxeetan baliabide didaktiko gehiegi daudela. Dena den, datu horiek agerian uzten dutenaren arabera, ez dago baliabide-sortzailatzat har daitekeen hainbeste proiektu. Proiektu horiek ezinbestekoak dira, bai sentsibilizaziorako, bai prestakuntzarako eta ekintzarako. Hipotesi batek baliabide-gabezia hori azaltzen du: baliabide hezigarri eta didaktikoak alde aurretik azaldutako continuumaren barruko eragin – eta mobilizazio-proiektuetan daude. Beste elementu batek ere eragina izan dezake; izan ere, erakunde finantzatzaileen baldintzak betetzeko, zaila da baliabide didaktikoak egitea helburu bakarra duten proiektuak aurkeztea, eta hortaz, horrelako proiektuak proiektu zabalagoen barruan sartzen dira.

Erakunde finantzatzaileek urtebetean banatutakoaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu azken urteetan prestakuntzak eta sentsibilizazioak gero eta garrantzi txikiagoa dutela, eta eraginak, mobilizazioak eta ikerketak, ordea, gero eta handiagoa.

11. Grafikoa. 2004tik 2009ra bitartean finantzatutako proiektuen mota, erakunde finantzatzaileen arabera



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Erakunde finantzatzaileen arabeko azterketa sakonagoa eginez gero, egiazta daiteke Eusko Jaurlaritzak prestakuntza-proiektuak babesten dituela batik bat, nahiz eta, aztertutako azken urtean, beherakada nabarmena gertatu den. Ikerketarekin, eraginarekin eta mobilizazioarekin lotutako proiektuen kopurua eta zenbatekoa handitzeko joera dago. Zenbait proiektu-motaren kopuruak bere horretan jarraitzen du, gutxi gorabehera; batzuk bi urtetik behin egiten dira, eta horrek, eskuarki, proiektuek nolabaiteko jarraitutasuna dutela frogatzen du. Proiektu hauek daude kasu horretan: dokumentazio-zentroak, erakundeak indartzea, eta sareak eta aliantzak. Berrito ere, baliabide didaktikoak egitearekin lotutako proiektuak sakabanatuago daude, baina, betiere, gutxitzeko joera dute.

Kontsultatutako erakundeei proiektuak bi tipologiatan deskribatzeko aukera eman genien; izan ere, aurkezten dituzten proiektu gehienak zenbait proiekturen

arteko batura dira. Erakunde gutxiagok bete dute bigarren tipologia, eta horrek deskribatzen zuena aztertuz gero, ikusiko dugu GGKE-ek beren proiektuak prestakuntzakoak, eragin politikokoak, eta parte hartzekoak edo sentsibilizaziokoak zirela adierazten zutela. Nolabait, horrek egiazta dezake, lehen baino eragin – eta ikerketa-proiektu gehiago egiten badira ere, erakundeek sentsibilizazio – eta prestakuntza-proiektuak egiten jarraitzen dutela. Gainera, proiektuaren bigarren definizioan, sare eta aliantzekin lotutako gaiak azaltzen dira, lehen baino gehiago.

Oso deigarria da diagnostikoak edo ebaluazioak/sistematizazioak soilik egiteko proiekturik ez egotea. Zenbait interpretazio izan ditzake horrek, baina frogatuta dago proiektu espezifiko gisa oso gutxitan azaltzen direla.


Foru-aldundien kasuan, proiektuen tipologia nola banatuta dagoen aztertzen badugu, Eusko Jaurlaritzak lehen urteetan bezala jokatzten dutela ikusiko dugu. Prestakuntza – eta sentsibilizazio-proiektuak dira ugariak, bai proiektu-kopuruari begira, bai zenbatekoak kontuan hartuta. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, argi dago prestakuntzaren aldeko apustua egiten duela; ondoren, eragin politikoko proiektuak eta baliabide didaktikoei buruzkoak daude. Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek sentsibilizazio-proiektuak finantzatzen dituzte batez ere. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak sentsibilizazioa lehenesten du prestakuntzarekiko. Bestalde, gainerako laguntzak eraginarekin, ikerketarekin eta baliabide didaktikoekin lotutako proiektuak finantzatzeko dira.

GGKE-*ei* proiektuen tipologia zehazteko emandako bigarren aukerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egoeraren kontrakoa ikusiko dugu. Proiektuen bigarren definizioan, 42 proiektu zeuden; alegia, aldundiek finantzatutako proiektuen %16. Kasu horretan, hiru aldundiei dagokienez, sare eta aliantzekin eta eragin politikorekin lotutako proiektuen kopuruak gora egin zuela ikusiko dugu. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, azpimarragarria da eragin-proiektu gehiago finantzatu zituela sare eta aliantzekin lotutakoak baino, beste bi aldundiek ez bezala.

Azkenik, udalei dagokienez, Donostiako Udalaren jardura da bereziki aipatze-koa, sentsibilizazio-proiektu asko finantzatu baitzituen. Bilboko eta Gasteizko udaletan, nolabaiteko oreka dago sentsibilizazio – eta prestakuntza-proiektuen artean. Gainera, eragin politikoko proiektuak eta ikerketa-proiektuak ere finantzatu zituzten, baina kopuru txikiagoan. Urteak joan eta urteak etorri, banaketa hori ez da ia aldatu; egonkor samarra da.

2.8. LANDUTAKO GAIAK

Garapenerako hezkuntzako proiektuetan landutako eta sakondutako gaiak aztertzen baditugu, hurrengo grafikoko irudia lortuko dugu.



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Begi bistakoa da zenbat gai bereziki nagusitzen direla, argi eta garbi lehenago aipatutako garapenerako hezkuntzako belaunaldiak lotutakoak; hala nola, ekonomia eta bidezko merkataritza, eta herritartasun globala. Eta harrigarria da zenbat proiektu dauden “Beste batzuk” kategorian.

Azken urteetan, balioetan heztearen gaiak gero eta garrantzi gutxiago du. Beste gai batzuetan (beste herrialde batzuen ezaguera, giza eskubideak, etab.), nola-baiteko egonkortasuna hauteman dezakegu. Gainerako gaietatik, zaila da ondorioak

ateratzea, salbuespenak salbuespen; hain zuzen, herri indigenekin lotutako gaiari lehenasuna ematen hasi zaio azken urteetan, baina beti egon dira gai horretan espezializatuta dauden erakundeak. Beste gai baten garrantzia handitu da, hain zuzen ere, hedabideena. Gainera, “Beste batzuk” atalean dauden proiektu batzuekin lotuta dago. Hedabide tradizionalen eta alternatiboen artean, azken horien garrantzia handitu da gehien.

Emileen arabera aztertuz gero, ikusiko dugu udalen kasuan ekonomia eta bidezko merkataritza dela gai nagusia. Ildo horretan, Gasteizko Udalak hitzarmen espezifikoa ditu, baita hainbat urtetarako programak ere, bai horrelako proiektuei laguntzeko, bai Udalaren beraren barruan ekintza espezifikoak sustatzeko. Herritartasun globalaren aldeko lana lehenasunezkoa da Gasteizko Udalarentzat (lehen postuan, ekonomia eta bidezko merkataritzaren gaiaren aurretik) eta Bilboko Udalarentzat. Gai horien ondoren, baina distantzia handian, balioetan heztearekin lotutako gaia dago.

Ekonomia eta bidezko merkataritzaren gaia aldundientzat ere lehenasunezkoa da, baina aldundi guztiek ez diote garrantzi bera ematen. Gipuzkoako Foru Aldundiak balioetan heztearekin eta herritartasun globalarekin lotutako gaiari laguntzen die, ekonomia eta bidezko merkataritzaren gaiari baino gehiago. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, bidezko merkataritzarekin lotutako proiektuak finantzatu ditu gehienbat, eta beste herrialde batzuen ezaguerarekin eta herritartasun globalarekin lotutako proiektuak ere bai. Arabako Foru Aldundiak migrazioekin eta kultura artekotasunarekin lotutako proiektuak finantzatzen ditu, eta deigarria da beste erakunde finantzatzaile batzuek garapenerako hezkuntzaren arloan egindako deialdietan horrelako gairik ez azaltzea.

2.9. LEHENETSITAKO KOLEKTIBOAK


Garapenerako hezkuntzako garapen teorikoak azpimarratzen du zenbait kolektibotan arreta jartzea garrantzitsua dela, eta kolektibo horiei mezu espezifiko eta egokiak eman behar zaizkiela. Oso gai garrantzitsua bada ere, horri buruzko informazio gutxi daukagu.

Lehenago esan dugunez, zenbait erakunderekin jarri ginen harremanetan, eta haietako batzuek proiektuei buruzko informazio gehigarria eman digute. Alabaina, denek ezin digute kategoria horiei buruzko informaziorik eman. Horrenbestez, egiten ari garen azterketaren arabera, informazioa ateratzeko zer proiektukopurutan oinarritu garen esango dugu.

2.9.1. Adinaren arabera

Proiektuen %29k (hain zuzen, 207 proiektu) adierazten dute zer adin-tarteko kolektiboentzat diren.

Proiektu espezifiko bakoitza zer kolektiborentzat zen galdetu genien erakunde guztiei, informazio gehigarri hori izateko. Adin-tarte hauek eman genizkien: Haurtzaroa: 3-12; Gaztaroa: 13-18; Heldu gazteak: 19-30; Pertsona helduak: 31-59; Adinekoak: 60 baino gehiago; eta denak.



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Erakunde finantzazailer guztiak aztertuta eta denboraren joanean izandako bilakaera ikusita, egiazta dezakegu proiektu gehienak 31 eta 59 urte bitarteko adin-taldeko pertsonentzat –pertsona helduentzat– izan direla. Lehenetsitako hurrengo kolektiboa publikoa zen, oro har; alegia, ekintzen xedea ez zen kolektibo espezifiko bat. Azken urteetan, adinekoentzako proiektu batzuk sortu dira. Bereziki deigarria da kolektibo gazteentzat egiten den proiektu-kopuru txikia. Kolektibo horietatik, proiektu gutxien jaso duen kolektiboa haurrena da (3 eta 12 urte bitarteko pertsonak); gainera, urteak joan eta urteak etorri, proiektu-kopuru

hori ez da ia aldatu. 3 eta 30 urte bitarteko kolektiboentzat, proiektu guztien %26 bideratzen da, baina kontuan hartu behar da adin-tarte hori oso zabala dela.

Erakunde emaileen jokaerari erreparatuta, zenbait apustu espezifiko azpimarratzen dira. Lehenengo eta behin, Bilboko Udalak heldu gazteak lehenetsi ditu pertsona helduen gainera. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Donostiako Udalak publiko orokorarentzat diren proiektuei ematen diete lehenetasuna; hau da, ez dute lehenetasun espezifikorik ezartzen. Dena den, nabarmendu beharra dago Donostiako Udalak beste administrazioek baino lehenetasun handiagoa ematen diela hurren kolektiboa xede duten proiektuei. Azkenik, aipatzekoa da Gasteizko Udalak finantzatutako ekintza gehienak pertsona helduentzat edo publiko orokorarentzat direla; Eusko Jaurlaritzak lehenetasun bera du.

2.9.2. Kolektibo espezifikoaren arabera

Proiektuak kolektibo jakin batentzat ote ziren galdetu genien erakundeei; ea baztertutako pertsonentzat, urritasuna dutenentzat, etorkinentzat edo emakumeentzat ziren, edo inorentzat ere ez.

Horri buruz jaso genituen erantzunak apur bat txikiagoak izan dira orain arte aurkeztu ditugun batez bestekoa baino. 210 proiekturi buruzko informazioa eman digute erakundeek; hots, onartutako proiektuen 28ri buruzkoa.


Proiektu gehienak ez dira kolektibo jakin batentzat egiten, eta Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak finantzatutako proiektu batzuek emakumeak dituzte xede (hain zuzen, informazioa dugunen %8a). Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak pertsona migratzaileen kolektiboari laguntzeko garapenerako hezkuntzako proiektuak finantzatzen dituzte (proiektu guztien %4a).

2.9.3. Hezkuntza-esparruaren arabera

Proiektuak zer hezkuntza-esparrutan egin behar diren kontuan hartuz gero, ikusiko dugu 192 proiektuk (%27) ematen dutela horri buruzko informazioa.

Proiektu horiek aztertuta, esan dezakegu garapenerako hezkuntzako proiektu gehienak hezkuntza-esparru ez-formalean egiten direla; ondoren, hezkuntza-esparru informalean egindako proiektuak daude. Hezkuntza formalean –onartutako titulazioak ematen dituzten hezkuntza-zentroetan–, proiektuen %26a egiten dira.

Hortaz, proiektu gehienek kolektibo edo elkarte espezifikoak dituzte xede (%41), edo hedabiderik masiboenak (%32).



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Grafiko horri erreparatuta, elementu batek ematen du atentzioa: Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak ez dute hezkuntza formalean proiekturik finantzatu. Gainera, administrazio guztiek lehenetsitako jarduerak ematen diete hezkuntza ez-formalean egiten diren proiektuei, Bilboko Udalak eta Gasteizko Udalak izan ezik; izan ere, bi udal horiek proiektu gehiago finantzatu dituzte hezkuntza informalean.

Aztertutako urteetan zehar izandako bilakaerari begira, ikus daiteke gero eta proiektu gutxiago egin direla hezkuntza formalaren esparruan. Aitzitik, hezkuntza ez-formalean, joera positiboa dago; hots, gero eta proiektu gehiago finantzatu dira. Hori guztia bat dator garapenerako hezkuntzako bosgarren belaunaldiaren lehenespenekin.

3. Eraginkortasunaren eta garapenerako hezkuntzaren agendaren diskurtsoa

Eraginkortasunaren Agendaren diskurtsoa “gobernuek eta nazioarteko erakundeek laguntzaren eraginkortasunari buruzko diskurtso ofizial bat eraiki nahian egindako ibilbidearekin” dago lotuta. Agenda hori 2002az geroztik laguntzaren eraginkortasunari buruz egindako lau foroetan adostutako dokumentu ofizialek osatzen dute, bai eta ondoren gai jakinen harira erantsitako zenbait dokumentu ofizial espezializatuk ere (estatu ahulei laguntzeari edo hegoaldeak hegoaldeari laguntzeari buruzkoak).

Ibilbide horren abiapuntuan daude Nazio Batuen babesean sinatutako Milurtekoko Adierazpena (2000) eta, Milurtekoko Garapen Helburuei estu lotuta, Monterreyn garapenaren finantzaketa jorratzeko egindako topaketa (Mexiko, 2002). Aipatu berri dugun hiri horretan, adostasuna lortu zen finantzazioari lotutako hamaika alderditan (zorria, merkataritza, nazioarteko finantzak...), eta dei argi bat egin zen, emandako laguntzaren eraginkortasuna hobea zedin. Une horretatik aurrera, ELGaren Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) lemapean, bidea egin da, laguntza eraginkor egiteko irizpideak eztabaidatzeko eta adosteko. Tartean, mugarri hauek izan dira: Erroma (2003), Paris (2005), Akkra (2008) eta Busan (2011)”.⁴

Agenda hori egiteko prozesuan, Accrako Goi Mailako Foroa egin zen arte (2008), tokiko erakundeek eta gobernu kanpoko erakundeek ezin izan zuten parte hartu.

⁴ Gai honetan sakontzeko, bilduma honetako 2. koadernoan kontsulta daiteke: Eraginkortasunari esanahi berria ematen.

1. Koadroa. Garapenaren eraginkortasuna zer den

Garapenaren eraginkortasuna zer den (Nairobiko Adierazpena, 2012ko abendua)

“Garapenaren eraginkortasunak aldaketa iraunkorrek sustatzen ditu, pobrezia, bereizketaren eta bazterketaren zioak zein sintomak kontuan hartzen dituen esparru demokratiko batean, elkar osatzen duten askotariko tresna, politika eta eragileen bidez. Garapenaren eraginkortasuna, laguntzari lotuta, garapen-eragileen politiken eta praktiken multzo gisa ulertzen da, laguntzaren eta garapenerako lankidetzaren eragina areagotzen duena, pobreak eta bazterketak jotako herrialdeen eskubideak betearazteko eta nazioartean adostutako garapen helburuak (NAGH) erdiesteko orduan⁵. Garapenaren eraginkortasunaren helburuak betetzeko baldintzek berekin ekarri behar dute laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko konpromiso neurgarria”.

Eraginkortasunaren printzipioak (Istanbuleko Adierazpena, 2010eko iraila)



1. Giza eskubideak eta gizarte-justizia errespetatzea eta sustatzea.



2. Genero-berdintasunarekin eta zuzentasunarekin bat egitea, eta aldi berean, emakumeen eta neskatuen eskubideak sustatzea.



3. Jabeakuntza, apropiazioa eta pertsona oren partaidetza ardatz egitea.



4. Ingurumen-iraunkortasuna sustatzea.



5. Gardentasunez jokatzeko eta kontuak ematea.

⁵ Nairobiko Adierazpenean jasotzen denez, NAGH dira: “Nazio Batuen garapen-ahaztutako zenbait helburu espezifikoaren multzo bat, askotan, epe jakin bat dutenak. Helburu horiek zenbait konpromiso laburbiltzen dituzte, 1990az geroztik, NBEren munduko goi-bileratan, garapenaren erronkei buruz hartutakoak. Konpromiso horietako batzuk Milurtekoko Adierazpenean jaso ziren, 2000ko NBEren Milurtekoko Goi Bileran parte hartu zuten gobernu guztien atxikimenduari. NAGHei barnean hartzen dituzte Milurtekoko Garapen Helburuak, helburu sorta handiago baten baitan. Besteak beste, nazioen hazkunde ekonomikoa, bereizketarik gabeko gizarte-garapena, lan duina, garapen iraunkorra, giza eskubideak (emakumeen, haurren eta indigenen eskubideak barne), mundua demokratikoki gobernatzea, bidezko merkataritza, zorra kitzatzea eta migrazio-eskubideak”.



6. Zuzentasunean eta elkartasunean oinarritutako aliantzak egitea.



7. Ezagutzak sortze eta partekatzea, eta elkarrengandik ikasteko konpromisoa hartzea.



8. Aldaketa positiboak eta iraunkorrak lortzeko konpromisoa hartzea.

Iturria: Nairobiko Adierazpena eta Istanbulko Adierazpena.

Garapenaren eraginkortasunaren agendaren ibilbide horretan, hezkuntza oso gutxitan azaldu da eskuarki. Noizean noiz azaldu da, oinarrizko gizarte-zerbitzuen aldeko apustuarekin eta defentsarekin lotuta. Hain zuzen, garapenerako hezkuntza ez da eztabaidagai izan, harik eta, eztabaida horren esparruan, lankidetzaren deszentralizatua zalantzan jarri zen arte.

Azken urteetan horri buruz hausnartu duten pertsona askoren iritziz, lankidetzaren deszentralizatuari zentzua ematen zioten ezaugarri eta elementuetako bat garapenerako hezkuntza zen, hain zuzen ere. Laguntza gehiena gobernu kanpoko erakunde bidez kudeatzen denez, tokian jarduten denez eta herritarrengandik gertu egoten denez, garapenerako hezkuntzaren estrategiak lankidetzaren deszentralizatuaren elementu definitzaileak dira. Eraginkortasunaren agendari buruzko eztabaidan, lankidetzaren deszentralizatua zalantzan jarri zen, baina, Busango Goi Mailako Foroan, nolabait balioetsi zuten; izan ere, foro hartan, tokiko erakundeak lankidetzako eragile garrantzitsuetako batzuk zirela ondorioztatu zen.

Eraginkortasunaren agendak zenbait osagai teknikotan jarri du arreta gehiago, laguntzak atzeraldi ekonomikoko testuinguru batean eragin handiagoa izan dezan. Ildo horretan, laguntzarako bideratutako baliabideak gutxitzen ari diren testuinguru batean, lankidetzari buruzko eztabaidagaia kalitatea da. Lankidetzari buruzko eztabaidetan kantitatea eta kalitatea aurrez aurre jartzeak ez du zentzurik itxuraz. Gainera, 1990eko hamarkadan garapenaren agendaren inguruan ezarritako konpromiso politikoak ahaztea edo desagertzea zekarren eztabaida bat tekniko eta espezializatu gisa aurkezten saiatu dira batzuk.

Horrenbestez, espezifikotasun baten aurrean (laguntzaren eraginkortasuna hobetzea), gizarte-erakundeak garapenaren eraginei buruz eztabaidatzen hasi dira, eta eztabaida horretan, pertsonak eta haien komunitateen eta ingurunearen

garapena hartu dituzte ardatz. Eztabaida hori dela eta, gizarte-erakunde askok –eta gizarte-erakundeen sare askok– garapenaren agenda negoziatzen ari ziren pertsonengana bideratu dituzte beren eragin – eta mobilizazio-ekintzak; alegia, alde batera utzi dituzte aurreko urteetan garapenaren alde ezarritako eragile, gai eta konpromisoak.

Horren guztiaren ondorioz, erronka berriak proposatu behar ditugu garapenerako hezkuntzaren etorkizunari begira, garapena herrialde guztietan sustatzeko estrategia gisa.

4. Hezkuntza global eta eraldatzailearen etorkizuneko erronkak

4.1. GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA GARAPENERAKO HEZKUNTZAN ETA LANKIDETZAN

Kasu gehienetan, korapilatsua izan da garapenerako lankidetzari buruzko informazioa lortzea. Dena den, aztertutako urteetan zehar egiaztatu dugunez, garapenerako lankidetzak bilakaera positiboa izan du. Orobat, oso garrantzitsua iruditzen zaigu udalen gardentasuna eta informazioa lortzeko eman dizkiguten erraztasunak nabarmentzea. Gasteizko eta Bilboko udalen webguneetan, oso erraz eskura daitezke lankidetzaren arloko memoriak. Donostiako Udalak ere informazioa du, baina ezin da hain erraz lortu, eta gainera, ez dago azalpen-memoriarik. Gainerako administrazioek informazio orokorra eskaintzen dute beren webguneetan, baina ez dute ematen ez ebazpenei buruzko informaziorik ez urteko memoriarik. Hortaz, informazioa lortzeko, aldizkari ofizialetara jo behar izan dugu, eta zenbait aldundiren kasuan, datu zaharragoak eskatu behar izan dizkiegu, bestela lortzerik ez baitzegoen. Hori izan da Euskal Fondoaren kasua, nahiz eta gero eta informazio gehiago jartzen duen bere webgunean.

Informazioa eskatu behar izan dugunean, ez dugu lortzeko zailtasun handirik aurkitu. Alabaina, gure ustez, herritarrekiko argitasunari eta gardentasunari begira, informazio hori jendearen eskura jarri beharko lukete erakundeek, garapenerako hezkuntzako eta lankidetzako baliabideak zertarako erabiltzen diren jakin nahi duten pertsona guztiek kontsultatzeko aukera izan dezaten. Deialdi publikoen ondorioz gobernuz kanpoko erakundeen bidez kudeatzen diren laguntzei buruzko informazioaz gain, kudeatutako aurrekontuaren erabilerari buruzkoa ere jarri

beharko lukete jendearen eskura. Zalantzarik gabe, informazioa eskura badago, herritarrek sentsibilizazio handiagoa izan dezakete garapenerako lankidetzarekiko eta hezkuntzarekiko, eta hobeto jakin dezakete arlo horietan zer lan egiten den. Hortaz, jendeak gehiago lagunduko luke.

4.2. GARAPENERAKO HEZKUNTZA PROIEKTU ETA HITZARMENETATIK HARATAGO

Oro har, garapenerako hezkuntzan, ekintza hauek sartzen dira: gobernuz kanpoko erakundeek eta erakunde publikoek munduko injustiziaren kausekiko sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta kausa horiek azaltzeko egiten dituzten ekintza guztiak.

Beraz, garapenerako hezkuntzan, deialdi publikoetan aurkezten diren askotariko tresnak erabiltzen dira. Besteak beste: aztertutako erakunde finantzatzaile gehienek kasuan –Euskal Fondoa alde batera utzita–, garapenerako hezkuntzako proiektuak, eta Bilboko eta Gasteizko udalen kasuan, hainbat urtetarako proiektuak. Hainbat urtetarako proiektuei buruzko deialdiei esker, garapenerako hezkuntzako lanak jarraitutasuna eta egonkortasuna izan ditzake.

Hala ere, tresna horiez gain, badaude beste batzuk, administrazio publikoek garapenerako sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntzako lana indartzeko erabiltzen dituztenak. Horien artean aipatzekoak dira hauek:

- **Lankidetzeta-hitzarmenak.** Zenbait partzuergoren eta koordinakunderen sendotze instituzionala bideratzen dute, edo aurreikusitako deialdietan sartzen ez diren edo jarraitutasuna behar duten garapenerako hezkuntzako proiektuei laguntzeko balio dute. Hona hemen adibide batzuk: GGKE-en koordinakundeei (Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak...) laguntzeko, bidezko merkataritzako partzuergoei laguntzeko, denboran iraunkorrak diren prestakuntza-prozesuak babesteko (Gasteizko Udalaren eta Setemen arteko hitzarmena) eta aldizkako argitalpenak egiteko hitzarmenak. Hitzarmen horiek babes iraunkorra ematen dute, eta parte-hartzaileek haren baldintza espezifikoak negoziatzeko nolabaiteko aukera dute. Gasteizko Udalaren hitzarmen asko aipatu ditugu; izan ere, udal horrek ondo garatu du formatu hori, bai garapenerako hezkuntzan, bai garapenerako lankidetzan, eta zehatz-mehatz adierazten du bere memorian. Beste erakunde batzuei dagokienez, ez dugu finantzatutako hitzarmenei buruzko informazio publikorik.

- **Informazio-, hedapen- eta prestakuntza jarduera propioak.** Erakundeek beraiek egiten dituzten jarduerak dira, herritarrei munduko injustiziaren berri emateko. Haietako batzuk sentsibilizatzeko dira, hala nola argazki-erakusketak, jardunaldiak eta hitzaldiak. Beste batzuek parte hartzeko aukera ematen diete herritarrei, sentsibiliza daitezen. Zenbait lehiaketa-mota dira (argazki-lehiaketak, ipuin-lehiaketak, etab.), eta beste errealtate batzuen berri emateko erabiltzen dira. Azkenik, beste jarduera batzuk informazioa emateko eta zabaltzeko erabiltzen dira; adibidez, webguneetako informazioa eta baliabideak eguneratzen dira, eta material espezifikoak hedatzen dira.
- Halaber, **beste sail eta zerbitzu batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko** lan interesgarri bat ere egiten da –batik bat, udalen artean–, norberaren sailean sortzen diren irizpide, proposamen eta baliabideak azaltzeko elkarri. Besteak beste, helburu hauek dituzte: bidezko merkataritzako produktuak erakundearen barruan sustatzea, eta generoaz, migrazioez, gizarte-zerbitzuez eta gazteriaz arduratzen diren sailetan garapenerako lankidetzaren lantzea.
- Bestalde, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak **boluntarioei eta borondatezko langileei laguntzak emateko deialdiak** dituzte, Hegoaldean garatu beharreko borondatezko lana edo lankidetzaren finantzatzeko.
- Gainera, erakunde batzuek **beren bekak eta programak** dituzte, gure inguruko pertsonen sentsibilizazio –edo laneratze-esperientziak izan ditzaten Hegoaldeko herrialdeetan. Programa horietako batzuek baldintza hau jartzen dute: Hegoaldera joan diren pertsona horiek, itzultzean, beste pertsona batzuk sentsibilizatzeko edo haiei prestakuntza emateko prest egotea.

Txosten honetan, garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruko baliabide gehienak jasotzen dituzten garapenerako hezkuntzako proiektuetan jarri dugu arreta. Ez dugu gainerako tresnetan sakontzeko aukerarik izan, informazio guztia ez geneukalako. Gorago aipatu dugunez, Gasteizko eta Bilboko udalek izan ezik, administrazio publikoek ez dute memoriarik egiten; hortaz, ez dakigu nola erabiltzen diren lankidetzarako eta hezkuntzarako baliabide guztiak. Gainera, ez dago informazio hori lortzerik, betiere, erakundeei beraiei eskatu ezean. Horrenbestez, hurrengo txostenetan egingo dugu alderdi horiei buruzko azterketa sakonagoa.

Bestalde, erakunde publikoek beste tresna eta ekintza batzuk erabiltzen dituzte, tokiko erakundeei indartzen laguntzeko. Eta esan liteke tresna eta ekintza horiek

garapenerako hezkuntzaren barruan sartzen direla, ikuspegi zabalago bat aintzat hartuz gero. Besteak beste, hauek dira:

- **Genero-ikuspegia sartzeko laguntzak**, bai erakundeetan bertan, bai garapenerako hezkuntzako edo lankidetzako proiektuetan. Garapenerako hezkuntzako proiektuei eta erakundeetan beraietan antolaketa aldatzeko proiektuei dagokienez, garapenerako hezkuntzarekin lotuta daudela esan liteke.
- Erakundeetako **kontsulta – edo partaidetza-kontseiluak**, jendeak parte hartzea eta gobernuz kanpoko erakundeak beraiek indartzea eragiten dutenak. Kontseilu horien ezagutzei eta egiteko moduei esker, erakundeek beste erakunde batzuk sentsibiliza ditzakete, eta haiei prestakuntza eman.

Erakundeen politika publikoak koherenteagoak izan daitezten da erronka nagusia. Udal eta aldundi batzuek egin dute, zenbait unetan. Orobat, behar-beharrezkoa da informazio hori publikoa izatea eta eskura egotea, bai eta ekintza horien eraginari buruzko ebaluazioak egitea ere.

Gaur egungo testuinguru zehatzean, beharrezkoa da gobernuz kanpoko erakundeen sektorea babestea eta sendotzea, administrazio publikoekin batera protagonista izaten jarrai dezaten; izan ere, planak eta prozesuak gauzatuko badira, funtsezkoa da sektorea erakunde publikoen aldetik eta gizarte zibilaren aldetik sendoa izatea.

Ildo horretan, erakunde publikoei dagokienez, ez dugu hau ahaztu behar: lankidetzaren politiketatik garapenerako politika deszentralizatuetarantz bidea eginez gero, garapenerako politiken koherentzia aurrera egin, garapenerako hezkuntza sustatu eta garapenerako komunitatean erantzukizun politikoa bultzatuko dugula.

4.3. ERAKUNDE-ESPARRUA ALDAKETA-TESTUINGURU BATEAN⁶

Lehenago azaldu dugunez, aldaketa-testuinguru batean gaude: alde batetik, administrazioak inoizko murrizketarik handiena ari dira egiten hezkuntzarako baliabideetan, eta beste batetik, herritarrek gero eta interes txikiagoa dute gai publikoetan. Gainera, gure ingurunearen egoerak gero eta gehiago kezkatzen gaitu; alegia, alde batera uzten dugu beste leku batzuetako pertsonen egoera hobetzen laguntzeko aukera. Bestalde, gizarteak solidarioa izaten eta antolatzen

⁶ Cf ALBOAN: *Educación para una ciudadanía global. Soñando con los pies en la tierra*. Bilbo, ALBOAN, 2012.

jarraitzen du, eta inoiz baino errazago mobilizatzen da premiazko errealitateen aurrean.

Testuinguru horretan, eraginkortasunaren agendak garapenerako lankidetzak teknifikatu eta zalantzan jartzen du, eta beraz, herritarrengandik urruntzen du. Hor-taz, beharrezkoa da lanean jarraitzea, egungo garapen-ereduaren kausen berri ematen jarraitzea eta eredu hori aldatzen laguntzeko aukerekiko sentsibilizatzen jarraitzea. Erakunde publikoek herritarren prestakuntza sustatzeko politikak izate-atea edo prestakuntzaren alde argi eta garbi egitea funtsezkoa eta garrantzitsua da hezkuntza-prozesuetan inplikaturik dauden erakunde guztien kasuan; esaterako, ikastetxe, gizarte-erakunde eta erakunde publikoen kasuan. Beraz, hezkuntzaren aldeko apustu argi eta esplizitua egiten bada, eta nahikoa baliabide erabiltzen badira, aipatzen ari garen praktikek beren horretan jarraituko dute.

Garapenerako hezkuntzarekin lotutako erakundeek bat egin behar dute erakun-de publikoen apustuarekin. Baina, gainera, gaur egun praktikari esker egiazta-tzen denez, erakunde publikoen eta hainbat arloekin (hezkuntza, migrazioak, kultura, bakea, giza eskubideak, ingurumena, gazteria...) lotutako erakun-deen arteko koordinazioa handia bada, esperientziak indartzen dituen efektu biderkatzailea sortzen da. Sektoreko edo antzeko sektoreetako erakundeekin lankidetzan aritzen bagara, apustuen osotasunean eta tokiko errealitatearen eta errealitate globalaren elkarrekiko mendekotasunean sakondu ahal izango dugu. Nazioarteko agendan, behin eta berriz esaten da politikak koherenteak izan behar direla, eta hori lortzea erronka handia da zenbait erakunde publiko-arentzat, eta bereziki, aldundientzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat. Ildo horretan, udalak izan dira politika horiek ondoen garatu dituztenak: hezkuntza-politikak; erosketa-politikak, kontsumo arduratsuekin lotuak; sentsibilizazio-politikak; etab. Askotan egin da eskaera hori, eta bete ezean, izugarritzko aukera galtzea ekar dezake Eusko Jaurlaritzaren kasuan; izan ere, Eusko Jaurlaritzak hezkun-tza-eskumenak ditu, alde batetik, eta beste batetik, politiken koherentzia gau-zatzeko gaitasuna du.

Hori dela eta, ezinbestekoa da politika publikoak koherenteak izatea, eta admi-nistrazio publikoek beste sail edota lan-esparru batzuekin hitzarmenak egitea eta gaur egungo zenbait jokoera aldatzea. Zentzu horretan, hezkuntzako, erosketa publikoko eta kontsumo arduratsuko arloak dira ondoen identifikatu direnak.

Halaber, beharrezkoa da administrazio publikoek eta gizarte-erakundeek ko-munikazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza balioestea, esku-hartze espezifiko

eta jakinetatik harago, eta asmo orokor baten baitan sartzea. Finantziazioa funtsezko elementua da horrelako hezkuntza-prozesuak garatzeko. Ildo horretan, beharrezkoa da finantziazioa egonkorra izatea, epe ertaineko eta epe luzeko prozesuen alde egiteko, malgutasunez, testuinguruko elementuei eta lagundutako taldeen beharrei erantzuteko.

4.4. METODOLOGIA BERRIAK ETA ZAHARRAK: JARRAITUTASUNA ETA BERRIKUNTZA

Egungo testuinguruan, beharrezkoa da hezkuntzako prozesu eta proiektuetan proposatzen diren metodologiak eta ekintzak berrikustea. Metodologia horiek beharrezkoak dira proiektu komunikatibo eta didaktiko guztietan, baliabide didaktikoak egiteko, prestakuntzak prestatzeko, mobilizazio-jarduerak antolatzeko. Ondo pentsatu behar da proiektuak zer publikorentzat diren eta zer mezu eman nahi den, komunikatu nahi duguna erakargarritasunez komunikatzeko eta mezu nagusia pertsonengana ondo iristeko, besteak beste.

ALBOANek 2011n hezkuntzari buruz antolatutako jardunaldi batzuetan (haietatik, lehenago erreferentziatutako argitalpena sortu zen), hurbilketa metodologikoa baztertzen ari zela eta hezkuntza formalaren esparruaren esku uzten ari zela egiaztatu zen. Horrenbestez, erronka hori berreskuratu behar da, eta metodologia erakargarri eta interesgarri berriak sortu. Metodologia horiek sormena garatzera behartzen gaituzte, eta ez dute baliabide handirik behar. Besteak beste, barre, jolas, antzerki, musika eta umorearen balioa indartu beharra dago, pedagogia eraldatzaileak baitira.

Edonola ere, metodologiak publikora egokitu behar dira. Eta hori, batzuetan, zaila da kolektiboaren arabera material espezifikoak egitea, eta horren ondorioz, kostuak handitu egiten dira, baina material horiek eragin handiagoa ere izango dute.

Gaur egun, berrikuntzak alderdi hauek izan behar ditu, gutxienez ere:

- Unean-unean sortzen diren **estereotipoen haustura**. Estereotipo horiek denborarekin batera aldatzen dira, eta testuinguruaren arabera, batzuk garrantzitsuagoak dira beste batzuk baino. Erakundeek eta hezitzaileek adi egon behar dute testuinguruko elementuei, ahalik eta erantzun hobea emateko.
- Horretarako, egunerokoa eta sistemaren eraldaketa globala uztartu behar dira. Beharrezkoa da **eraldaketa pertsonala egitea eta egiturak aldatzea**.

Baina beharrezkoa da gizabanakoei aldaketa-aukerak eskaintzea, bat egin dezaten, eta aldaketa sozialak eta orokorrak egiten lagun dezaten.

- **Teknologia berriak erabili** behar dira, lan-tresna gisa; izan ere, krisi – eta aldaketa-egoera honetan, gure mezua kolektibo gehiagorengana eta beste publiko batengana helaraz dezakegu teknologia berriei esker. Edozein kasutan, onartu behar da epe ertainean gehien erabiliko dugun baliabidea izango dela.

Funtsezkoa da pentsatzen, planifikatzen, ebaluatzen eta ikasten duten lantaldeak izatea. Horretarako, beharrezkoa da lan-egonkortasuna izatea, hezkuntza-prozesuak martxan jartzeko denbora izatea, plangintza estrategikoak egitea, egingdakotik ikastea, eta gure jardueren bidez eragiten ditugun aldaketak hautematea eta aztertzea.

Praktikak edo esperientziak “arrakasta” izango badute, testuinguru-azterketa hartu behar da kontuan. Ezinbestekoa da testuingurua aztertzea; izan ere, aurkeztutako esperientzia gehienetan, haiek sustatu eta finka ditzaketen elementuak baliatzeko aukera eman du (kolektiboak, baldintzak, guneak...). Aztertutako esperientzia gehienak tokikoak izan dira, egunerokotasunean sortu eta tokikoa globalarekin lotzen dutenak.

Testuingurua aztertzeari esker, proposamenak eta prozesuak jendearen errealtatean oinarritzen dira, eta pertsonen zenbait kezka erantzuten diete. Askotan, hezkuntza-proposamenen lana kezka sortzea da, kezkan oinarritu beharrean, baina, edonola ere, pertsonen interesak hartu behar dira oinarritzat.

Gainera, komeni da prozesu edo praktika eraldatzaile horietan ekintza-proposamen zehatzak egitea; alde batetik, ekintza horien xede diren pertsonak protagonistak izan daitezen, eta beste batetik, aldaketa globalagoa eragingo duten aldaketa pertsonal txikiak sustatzeko.

Gaur egun, argi dago behar-beharrezkoa dela kalean egotea. Proposamenek pertsonen eguneroko bizitzan islatu behar dute. Elementu garrantzitsua izan behar du horrek egiten diren praktiketan, eta sentsibilizazioa, prestakuntza eta ekintza lotu behar ditu, prozesu batean.

Horretarako, komunikazioa funtsezko elementua eta erreferentzia da hezkuntza-esperientzia guztietan. Beraz, denbora eta balioa eman behar zaizkio komunikazioari, publiko guztiekin harremanetan jartzea ahalbidetzeko, jardueren berri

eman, azalpenak eman, parte hartzera gonbidatu eta jardute aldera, besteak beste. Komunikazio horretan, eskura dauden metodologia, baliabide eta gune guztiez baliatu behar dugu.

Aztertutako praktiketan, oinarrizko beste alderdi bat hauteman dugu: tokikoarekin eta tokiko esparru horretako beste kolektibo eta talde batzuekin harremanak ezarri izana. Batzuetan, sare-lanean jardun beharra sortzen du horrek, eta beste batzuetan, beste lankidetzeta-mota batzuk eratzen dira: unean unekoak edo osagarriak.

Bestalde, beharrezkoa da gizarte-erakundeek eta administrazio publikoek gure ekintzen alderdi kuantitatiboari eta alderdi kualitatiboari buruz hausnartzea. Kuantitatiboari dagokionez, zenbaki handiak aztertu behar dira, eta kualitatiboari dagokionez, berriz, esperientzien eragina (kontuan hartuta esperientzia horiek, masiboak ez badira ere, adierazgarriak eta garrantzitsuak direla). Bi proposamenak interesgarriak eta beharrezkoak dira. Garrantzitsua da sentsibilizazio-ekintza masiboak egitea; hau da, pertsona eta kolektibo asko erakartzen dituztenak. Orobat, berritasunaren aldeko esperientziak eta proposamenak ere beharrezkoak dira: eragin biderkatzaile handia izan dezaketen talde txikien bidez, edo esku-hartze jarraitua eta sakona egin dezaketen taldeen bidez (esku-hartze hori erreferentziatzeko proposamena izan daiteke beste kolektibo batzuentzat). Beharrezkoa da administrazio publikoek eta GGKE-ek argi izatea zer esperientzia-motaren alde egin eta nola bideratu askotariko esperientzia horiek. Horretarako, askotariko finantziario – eta ekintza-tresnak behar dira, ekintza guztietan ezin baitira irizpide eta balorazio berberak erabili.

Jardunaldietan, erakundeek salaketa – eta eragin-lan gehiago egin behar direla adierazi du argi eta garbi. Salaketa – eta eragin-lan horietan, kalean jardun behar da, baina baita erakunde publiko edota pribatuekin ere.

1. Eragin politikoa giza eskubideen defentsari dagokio. Eragin horrek sistema aldatzea izan behar du helburu, eta horretarako, erakundeen beraien barruko koherentzia eta administrazio publikoen barruko koherentzia aztertu behar dira.
2. Esparru horretan lortu nahi den eragina zenbait alderdiren eta elementuren bidez zehazten da. Hona hemen: gizarte-esparruko baliabideen murrizketak, hezkuntza-politikak, zentro espezifikoaren egoera, hezkuntzaren kalitatea, migrazio-politikak... Gainera, eragina lankidetzeta-politiko publikoetan ere beharrezkoa da.

5. Bibliografía

- AECID. (2010). *Estrategia de educación para el desarrollo de la cooperación española*. Madrid: AECID.
- ALBOAN. (2012). *Educación para una ciudadanía global. Soñando con los pies en la tierra*. Bilbo: **ALBOAN**.
- Askoren Artean. (2009). *Educación para la ciudadanía global. Debates y desafíos*. Gasteiz: Hegoa.
- Caballero, I. (2004). *Cuaderno de trabajo de educación para el desarrollo*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Círculo Solidario Euskadi. (2007). *Acercando experiencia de educación para el desarrollo*. Bilbo: Círculo Solidario Euskadi.
- Círculo Solidario Euskadi. (2011). *Tejiendo retos. Una aproximación a la ED en las ONG de Euskadi. Diagnóstico participativo*. Bilbo: Círculo Solidario Euskadi.
- Escudero, J., eta Mesa, M. (2011). *Diagnóstico de la Educación para el Desarrollo en España*. Madrid: Ceipaz.
- GGKE-en koordinakundea (2011). *La educación para el desarrollo en las Coordinadoras Autonómicas de ONGD*. Madrid: CONGDE.
- Iborra, J., Martínez, P., Martínez, I. (2013). *Diagnóstico sobre las políticas de cooperación de los gobiernos autonómicos en la cooperación descentralizada a debate – La eficacia de la yuda el post-2015*. Bartzelona: CIDOB, Art-PNUD, Milurtekoko Kanpaina.

- Mesa, M. (2000). *La educación para el desarrollo en la Comunidad de Madrid: tendencias y estrategias del siglo XXI*. Madril: Mimeo.
- Mesa, M. (2001). “La educación para el desarrollo: evolución y perspectivas actuales”, Monclus, A. (koord.): *Educación para el desarrollo y cooperación internacional*. Madril: Complutense/Unicef.
- Mosaiko. (2012). *Reflexiones sobre movilización social*: http://ciudadaniaglobalhiritartasuna.files.wordpress.com/2012/04/2012_04_docmovilizacionmosaiko.pdf
- Ortega Carpio, Mari Luz. (1994). *Las ONGD y la crisis del desarrollo: un análisis de la cooperación con Centroamérica*. Madril: Iepala.
- Polygone. (2004). *Mosaico educativo para salir del laberinto Red Internacional de Educación para el Desarrollo y Educación Popular*. Gasteiz: Polygone.
- Rodríguez, N. (2013). *Análisis de la cooperación pública vasca 2008-2010. Una mirada a la cooperación descentralizada*. Gasteiz: Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.
- Unceta K., Amiano, I., Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012). *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo, HEGOA.